



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

ON JOSEBA SEGURA GOTZAINA

"FRATELLI TUTTI"

5 PROPOSAMEN GARIZUMA ALDIKO BARRIKUNTZARAKO



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

TALDEAN SAKONTZEKO ETA LANTZEKO GIDOIA

A

5 IDEIA NAGUSI...



BURUA ETA BIHOTZA ZABALDUTA

Kristau itxaropenak ikuspuntu itxiak alde batera izten ditu, erosotasun pertsonala gainditu egiten dau eta bizitza eder eta duinago egiten daben ideal handietara zabaltzen da (FT 55).

Gure proposamena, etorkin eta baztertu guztiak hartu, babestu, sustatu eta gizarteratu (FT 129):

- Kristau maitasunak ez dau kontuan hartzen zauritutako anai-arrebaren jatorria (Lk 10: Samariar onaren parabola; FT 62).
- Jesusek ez deusku esaten hurkoak zeintzuk diran galdetzeko, gu geu danen hurko eta danentzat bihozbera bihurtzeko baino (FT 80).
- Jesusen eskaria: harresiak eraitsi eta zubiak eraiki daiguzala. *“...bat bakarra da zuen maisua, eta zuek danak anai-arreba zarie”* (Mt 23, 8; FT 95).



BERRESKURATUTAKO DOAKOTASUNA

Zer da doakotasuna? (FT 139-149).

- Gauzak hargaitik egin, berez onak diralako.
- Trukean ezer edo emaitza arrakastatsurik itxaron barik jardun.
- Truke interesatuaren kalkulu irrikatsua gainditu.
- Jainkoa doako doea zintzoentzat eta gaiztoentzat ataraten dau eguzkia (Mt 5, 45; FT 60).
- Danok gara aberatsak. Emon eta on egin daikegu ordainsaririk itxaron barik, guk emon aurretik dana emon izan jakulako (*“Doan hartu dozue, emon doan”*, Mt 10, 8; FT 140).



SENDOTUTAKO ALKARTEA

- Esker oneko autortza gizarte alkarteak emon deuskun guztiagaitik.
- Gure fede alkarteak aintzat hartu, gu baino handiagoa dan indar sendatzailean sinisteko eta Jainkoaren ametsa amesteko leku izan daitekez-eta (Norberekeria ilustratuaren adierazpen dan argumentu arrazionalaren mugatasuna).
- Politika aintzat hartu ea “hobea” sustatu (V. kap.). Gizarte kontratu hutsa baino askoz gehiago da-eta.
- “Gizarte maitasunean” oinarritutako gizarte eta politika antolamendua sustatu: guztion ona maitatu, eraginkortasunez bilatuz pertsona guztien ona” (182. zenb.).
- Hunkiberatasuna ez ezik humanismoaren unibertsaltasunera zabaldutako egitasmoaren egiagazko konpromisoa dan maitasuna.



ALKARRIZKETAN JARDUNEZ

- Ezin deusagu hurkotasunari eta kontaktu fisikoari uko egin: horreek bakarrik sortzen dabez benetako giza lokarriak.
- Alkarrizketan jardutea, hurreratzea da, alkar entzutea, alkar ezagutzea, alkarri begiratzea, hartu-emonerako eremuak eta akordioak bilatzea.
- Inor ez da 'baliaezin'; danengandik ikasi daiteke zerbait.
- Gorrotoak, gorrotoa baino ez dau sortzen; ebanjelioak kate hori apurtzeko dinosku.
- Alkarrizketan jarduten dauan gizarteak:
 - besteari desbardin pentsatzeko aukera autortzen deutso,
 - beti errespetatzen dau bestearen duintasuna eta ez dau inor deabruzkotzat jotzen,
 - desbardinak txertatzen saiatzen da, bake sendoaren oinarriak jarteko, o adeitasuna bilatzen dau hartu-emonetan.



ESPIRITUALTASUNEAN SUSTATUTAKO SENIDETASUNA

- Badira lagun hurkoaz arduratzen ez diran (hurko eta gogaikarritzat edo urrineko eta garrantzi gitxikotzat joteagaitik) espiritualtasunak, frutu gitxi emoten dabena, gogortutako bihotzak biguntzen ez dabezanak edo buru itxiak aldatzen ez dabezanak.
- Ebanjelioa eszeptizismo eta zinismoagaz bateraezina da; Jainkoaren gurtza zintzo eta apalak biziaren errespetua eragiten dau.
- Pertsona guztien duintasunaren eta euren osoko garapenaren alde egiten dau eta errukia sustatzen.
- Kristau espiritualtasunak harresi mental eta fisikoak gainditu eta desbardinagaz bat egiteko eremuak zabaltzen ditu eta adiskidetzeari ereiten dau.
- Jesusen alkarteak eremu zabalak dira, amatiarrak eta pertsonak hartu, babestu, txertatu egiten ditu eta hazteko aukera emoten deutse.

B

HAINBAT GALDERA BAKARKA EDO TALDEAN LANTZEKO



"NIRI EZ DEUTS INORK EZER OPARITU"

Benetan, ba ete dot hori esaterik? Ze eragin izan dau nire bizitzan nire jaiolekuak, familiak, inguruak? Ze aukera izan dot horri esker?



"JAINKOAK ZINTZOENTZAT ETA GAIZTOENTZAT ATARATEN DAU EGUZKIA"

Zer dinost esaldi honek? Jainkoaren Erreinua, pertsona guztientzako agintzari ete da?




"DANA EZ DAGO GALDUTA. JAINKOAK GAUR BE, BETI EGIN IZAN DAUAN LEZ, ONAREN HAZIAK EREITEN DIHARDU (FT 54)"

Gure auzoetan, gure alkarteetan, ze zantzuk helarazten deuskuz oharen hazi horreek?

C BATERATZE-LANA

 15/20 minutu elkarriketan jarduteko.

 Ondorioak



D ERRONKA



Adiskide eta senidez osatutako alkarte izateko gaitasuna handitzen lagunduko deuskun ekintza zehaztu.

E OTOITZA



Mercedes Sosaren “Yo vengo a ofrecer mi corazón”, entzungo dogu.



**ENTZUTEKO,
KLIKEGIN IRUDIAN**

**EUREN BIHOTZAK ESKAINTZEN DABEZAN PERTSONAK
DAGOZAN BITARTEAN, ITXAROPENA DAGO**



Alkarregaz esango dogu...

Jauna, gizadiaren Aita, gizon eta emakume guztiak
duintasun beraz sortu zenduzana, isuri gure bihotzetara senide-sena.
Argitu gaizuz, bategite, alkarriketa, zuzentasun eta bakea amestu daiguzan.
Adoretu gaizuz, gizarte sanoagoak eta mundu duinagoa sortu daiguzan, hau da,
gose, pobretasun, indarkeria eta gerra bako gizarte eta mundua.
Gure bihotza lurreko herri eta herrialde guztietara zabaldu daitela,
horreetako bakotxean erein zenduan ona eta edertasuna autortu daigun,
batasunezko, baterako egitasmo eta
itxaropenezko lokarriak estutu
daiguzan.

FRATELLI TUTTI